



PRENSA OHARRA

BOST MILA ERTZAIN BAINO GEHIAGO SEGURTASUNAZ ARDURATUKO DIRA HAUTESKUNDE EGUNEAN

Datorren igandeko (martxoak 1) hauteskunde egunari begira, Ertzaintzako 5.000 agentek baino gehiagok parte hartuko duten zainketa berezi bat jarriko du martxan Herrizaingo Sailak. Hedatze honekin bukatuko da kanpaina osoaren normaltasuna ziurtatzeko asken asteotan abian izan den operazio berazia. Aipatutako bost mila agenteetako askok hauteslekuen zainketa zuzena burutuko dute udaltzaingoetako agenteekin batera. Bitartean, beste agenteek babes lan osagarriak beteko dituzte Ertzaintzako unitate guztiekin batera.

Prensa bulegoa

Herrizaingo Sailak abian jarritako plana hauteskunde kanpaina osoan zehar egon da martxan eta kanpainaren beraren eta bere baitan burututako ekintza guztien segurtasuna ziurtatzeko etengabeko zainketa egitera mugatu da. Plan honi amaiera datorren igandean (martxoaren 1ean, hauteskunde egunean) emango zaio. Bertan, Ertzaintzako bost mila agentetik gora izango dira lanean eta botoak emateko epea eta datu bilketak amaitzen diren unera arte luzatuko da aipatutako zainketa lana.

Bost mila horietatik bi mila agentek hauteslekuen zainketa zuzena izango dute helburu eta horretarako udaltzaingoetako agenteen laguntza izango dute. Beste guztien lana ostera, hiritarren segurtasunerako egitekoak eta unitate berezien zereginetan (lehergailuak, helikopteroak, lurpekoak, brigada mugikorak, e.a.) laguntza eskaintzea izango da; guztiak egongo dira alertan egun osoan zehar.

Agente talde berezi hau Ertzaintzako Zuzendaritzak koordinatuko du Ertzaintzako egoitza ezberdinetako erantzuleekin batera; beti ere, Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritzarekin, hauteskundeetako administrazioko erakundeekin, Foru Aldundi eta udalekin, Udaltzaingoekin e.a. kontaktuan egongo dira une oro.

Hauteslekuen zainketa zuzenaz arduratuko diren ertzainek Mahaietako Presidenteei lagundu ahalko diete botoa ematerakoan beharrezko ordena mantentzen dela ziurtatzeko. Hautesleketan edota inguruetan edonolako propaganda politikoa aurrera eramatea debekatzea da agenteen betebeharretakoa bat eta aldi berean, bozketa guneetara pertsonak sar ez daitezzen zaintzea ere. Ertzainek, botoa emango dutenek edonolako presio edo bortxakeriak ez jasotzea ere ziurtatu beharko dute. Azkenik, hautesleketan izango diren agenteek baita,

pertsona ezindu edo gaixoei erraztu beharko diete, ahal den neurrian, hauteslekura heldu eta bertan botoa eman ahal izateko aukera.

Gainera, Ertzaintzak, hala eskatzen duten mahai kideei lagundu eta erraztu beharko diete Bake-Epaitegira eraman beharreko dokumentazioaren garraioa.